

## **“AGIRITEGI, LIBURUTEGI ETA MUSEOETAKO LAGUNTZAILEEN” LAN-POL TSA ZABALTZEKO HAUTAKETA-PROZESUAREN AZTERKETA**

**UPV/EHU-KO GERENTEAREN 2018KO URTARRILAREN 22KO EBAZPENA**

### **LEHEN PARTEA (TEORIKOA)**

- 75 galdera, aukerako erantzunekin.
- Ordezko 10galdera.
- Gaizki erantzundako galderek edo erantzun gabe utzitako galderek EZ dute penalizaziorik izango.

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO  
BIKAINASUN  
CAMPUSA

CAMPUS DE  
EXCELENCIA  
INTERNACIONAL

**1. ZEIN IZAN ZEN HELBURU NAGUSIETAKO BAT BOLONIAKO  
PROZESUAREN LEHEN URTEETAN?**

- a) Europako Goi-mailako Hezkuntza Esparrua ezartzea.
- b) Europako Goi-mailako Hezkuntza Esparrua Boloniako Prozesuarekiko independentea da.
- c) Europako Goi-mailako Hezkuntza Esparrua ordeztea.
- d) Aurrekoetako bat ere ez.

**2. ESALDI HAUETAKO ZEIN DAGOKIO INFORMAZIO-ALFABETATZEAREN  
KONTZEPTUARI?**

- a) Informazioa noiz eta zergatik behar den, non aurkitu eta modu etikoan nola ebaluatu, erabili eta jakinarazi behar den jakitea da.
- b) Informazioaren gizartean modu eraginkorrean parte hartzeko aurrebaldintza da, eta bizitzan zehar ikasteko dugun oinarritzko giza eskubidearen parte da.
- c) Informazio-alfabetatzea informazio-arazoaren aurrean jokabide egokia izatea da, identifikatu ahal izateko, edozein kanal edo bitartekoren bidez, informazio-beharretara ondo doitutako informazio bat, informazioa gizartean modu jakintsu eta etikoan erabiltzea eragingo duena.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**3. HEZKUNTZA-ESPARRUAN, ZER DA SIG6?**

- a) Informazio-alfabetatzearen eredu bat.
- b) Liburutegien kudeaketa integralaren eredu bat.
- c) Atzerriko hizkuntzen ikaskuntzaren eredu bat.
- d) Unibertsitate-liburutegietako eskuratzearako eredu informatiko bat.

**4. ASSOCIATION OF COLLEGE AND RESEARCH LIBRARIES (ACRL)  
ELKARTEAREN THE INFORMATION LITERACY COMPETENCY STANDARDS  
FOR HIGHER EDUCATION LANAREN ARABERA...**

- a) Goi-mailako hezkuntza funtsezko osagaia da informazio-alfabetatzean.
- b) Informazio-alfabetatzea goi-mailako hezkuntzaren aurreko urrats bat baino ez da.
- c) Bizitzan zeharreko hezkuntza ez da informazio-alfabetatzearen helburuen parte.
- d) Informazio-alfabetatzea funtsezko osagaia da bizitzan zeharreko ikaskuntzan, zeina goi-mailako hezkuntzaren xede baita.

**5. ESALDI HAUEN ARTEAN, ZEIN EZ DA ERABILTZAILEENTZAKO  
LIBURUTEGI-ZERBITZU BAT?**

- a) Erabiltzaileen trebakuntza.
- b) Informazio bibliografikoa.
- c) Liburutegi arteko mailegua.
- d) Dokumentuen katalogazioa.

**6. CRAI-K EZ DAUKA:**

- a) IKTak dituen gelarik.
- b) Doktorego-tesiak argitaratzeko zerbitzurik.
- c) Talde-lanerako gelarik.
- d) Eramangarri-zerbitzurik.

**7. REBIUN-EN ZER PLAN ESTRATEGIKOTAN NAHI DA SUSTATU  
UNIBERTSITATE-LIBURUTEGI EREDU BERRI BAT, IKASKUNTZARAKO ETA  
IKERKETARAKO BALIABIDE-ZENTRO GISA ULERTUTA?**

- a) 2020ko plan estrategikoan.
- b) 2007-2010ko plan estrategikoan.
- c) 2003-2006ko plan estrategikoan.
- d) Aurrekoetako bat ere ez da zuzena.

**8. ZER URTETAN ONARTU ZEN Z39.50 PROTOKOLOA?**

- a) 1988. urtean.
- b) 1993. urtean.
- c) 2000. urtean.
- d) 2016. urtean.

**9. OPAC-EK EZ DU AUKERARIK EMATEN...**

- a) Aldizkari elektronikoetara sartzeko.
- b) Monografia bat erreserbatzeko.
- c) Baliabide bibliografiko bat identifikatzeko.
- d) Lan akademiko bat gordailura igotzeko.

**10. GALDEKETA-LENGOAIAK LIBURUTEGI-KATALOGO BATEAN  
ERREGISTROAK BILATZEKO AUKERA EMATEN DIGU. HAUETAKO ZEIN EZ  
DA LENGOAIA DOKUMENTAL BAT?**

- a) Trunkamendua\*
- b) Zernahitarako karakterea
- c) Parentesi karratuak [ ]
- d) Esaldi zehatza “...”

**11. HAUETAKO ZEIN EZ DA KATALOGO KOLEKTIBO BAT?**

- a) Washingtoneko Kongresuko Liburutegia.
- b) Espainiako Ondare Bibliografikoaren Katalogoa.
- c) Bizkaiko Foru Liburutegia.
- d) Liburutegi eta agiritegien CSIC sarea.

**12. ISBN, ISSN, NIPO eta VPN IDENTIFIKATZAILE BIBLIOGRAFIKOAK AL  
DIRA?**

- a) Guztiak identifikatzaile bibliografikoak dira.
- b) ISBN eta ISSN bakarrik.
- c) NIPO bakarrik.
- d) ISBN, ISSN eta NIPO bakarrik.

**13. HAUETAKO ZEIN EZ DA LEGE-GORDAILUAREN HELBURU BAT?**

- a) Kontrol bibliografikoa bermatzeko oinarrizko tresna bat sortzea.
- b) Argitalpen-ekoizpenari buruzko estatistika ofizialak egiteko aukera ematea.
- c) Katalogo komertzialak lokalizatzea erraztea.
- d) Herrialde baten ondare kulturala eta intelektuala biltzea.

**14. UPV/EHU-KO LIBURUTEGIAN, ERASMUSEKO IKASLEAK ERABILTZAILE  
MOTA HONEKIN PAREKATUKO DIRA:**

- a) Bekadun ikertzaileekin.
- b) Administrazioako eta zerbitzuetako langileekin.
- c) Ikasleekin.
- d) Bekadun ikertzaileekin.

**15. ZER DATU-BASE DAGOZKIE DOKTOREGO-TESIEI BAKARRIK?**

- a) LISA eta Dissertations & Theses.
- b) Index Thesorum eta TESEO.
- c) Dissertations & Theses eta TESEO.
- d) Index Thesorum eta LISA.

**16. LAN AKADEMIKO BATEAN, NOLA IDATZI BEHAR DIRA BESTE EGILE  
BATZUEN HITZEZ-HITZEZKO AIPUAK?**

- a) Letra etzanez.
- b) Letra lodiz.
- c) Komatxo artean.
- d) Parentesi karratuen artean.

**17. ZENBAT ALDIZ LUZA DEZAKE UPV/EHU-KO IKASLE BATEK BESTE  
ERABILTZAILE BATEK ERRESERBATUA EZ DUEN LAN BATEN MAILEGUA?**

- a) 6 aldiz.
- b) 3 aldiz.
- c) 2 aldiz.
- d) 5 aldiz.

**18. NOLA DU IZENA UPV/EHU-KO GORDAILU INSTITUZIONALAK?**

- a) SABI
- b) ADDI
- c) DIALNET
- d) ABI

**19. CREATIVE COMMONS (CC) LIZENTZIA BATEAN “BY” ZEHAZTAPENA  
BAKARRIK AGERI BADA, ZER ESAN NAHI DU?**

- a) Ez da jatorrizko lanaren ez lan eratorrien erabilera komertzialik egiteko baimenik ematen.
- b) Lan eratorriak sortzeko aukera ematen du, betiere haien erabilera komertzialik egiten ez bada.
- c) Lanaren eta hartatik sor litezkeen lan eratorrien erabilera komertziala egiteko aukera ematen da, baimenduta baitago haiek sortzea eta banatzea, inolako mugarik gabe.
- d) Lana helburu komertzialekin erabil daiteke, baina ezin da lan eratorriak sortu.

**20. DATU-BASE BIBLIOGRAFIKO HAUETATIK, ZEIN DA EGOKIENA JARDUERA FISIKOARI ETA KIROLARI BURUZKO INFORMAZIOA LORTZEKO?**

- a) INSPEC
- b) SPORTDISCUS
- c) ASME
- d) MLA

**21. ZER EMATEN DU JOURNAL CITATION REPORTS-EK (JCR)?**

- a) Gehien aipatzen diren artikuluek duten inpaktuaren adierazle bat.
- b) Aldizkariaren inpaktuaren adierazle bat.
- c) Egileen inpaktuaren adierazle bat.
- d) Gehien aipatzen diren egileek duten inpaktuaren adierazle bat.

**22. ZER IZEN DU AGIRITEGI-UNITATEAK OSATZEN DITUZTEN SAIL DOKUMENTALEN DESKRIBAPEN OROKOR ETA SISTEMATIKOA OINARRI DUEN AGIRITEGI-TRESNAK?**

- a) Gida.
- b) Inbentarioa.
- c) Aurkibidea.
- d) Katalogoa.

**23. ZER DA "GAI-SARRERA"?**

- a) Dokumentu batean jorratzen den gaiaren adierazle d(ir)en hitza(k).
- b) Apalategiak ordenatzeko oinarrizko informazioa.
- c) Laburpen-aurkibide bat.
- d) Monografia baten eskema deskribatzaile bat.

**24. UPV/EHU-REN ESTATUTUETAKO 103. ARTIKULUAREN ARABERA, ZER DA UNIBERTSITATEKO LIBURUTEGIA?**

- a) Ikerketari laguntzeko zerbitzu bat.
- b) Irakaskuntzari, ikaskuntza birtualari eta teletrebakuntza-jarduerei laguntzeko zerbitzu bat.
- c) Ikasteko, irakasteko eta ikertzeko baliabideen gunea, bai eta unibertsitate osoaren funtzionamenduari eta kudeaketarekin zerikusia daukaten bestelako jarduerak aurrera eramateko baliabideena ere
- d) Irakaskuntzan, ikerketan eta unibertsitatearen kudeaketan kalitatea eta bikaintasuna bermatzeko tresna bat.

**25. IDENTIFIKATU DOKUMENTU MOTAK ERREFERENTZIA  
BIBLIOGRAFIKOEN ARABERA:**

1. Garrido González, E. (2005). «El modelo de mujer romana en Hispania». In G. Morant Deusa (koord.). *Historia de las mujeres en España y América Latina* (221-239. or.). Madrid: Cátedra.
2. Saavedra Guerrero, M. D. (1991). *La mujer y las asociaciones en el Imperio Romano*. Santander: Kantabriako Unibertsitatea.
3. Nuñez Paz, M. I. (2015). «Auctoritas y mujeres romanas». *Arenal*, 22(2), 347-387.

- a) 1. Liburua. 2. Aldizkari-artikulua. 3. Liburu-kapitulua.
- b) 1. Aldizkari-artikulua. 2. Kongresu-hitzaldia. 3. Liburua
- c) 1. Liburu-kapitulua. 2. Liburua. 3. Aldizkari-artikulua.
- d) 1. Liburu-kapitulua. 2. Liburua. 3. Egunkari-artikulua.

**26. ZER ADIERAZTEN DU SAILKAPEN HAMARTAR UNIBERTSALEAN (SHU)  
ERABILTZEN DEN =... (BERDIN) IKURRAK?**

- a) Lekua.
- b) Arrazak eta herriak.
- c) Hizkuntza.
- d) Forma.

**27. ZER KONTSULTATUKO GENUKE ARKITEKTURARI BURUZKO  
BIBLIOGRAFIA-BILAKETA SISTEMATIKO BAT EGITEKO?**

- a) ABI/Inform
- b) Iconda
- c) LION
- d) SCIFINDER

**28. NOLA OSATUTA DAUDE TESAUROAK?**

- a) Goiburuz.
- b) Erregistroz.
- c) Deskriptorez.
- d) Aipu bibliografikoz.



**29. ZER DA ERIC?**

- a) Hezkuntzari buruzko informazioa duen datu-base bat.
- b) Ekonomiari buruzko informazioa duen datu-base bat.
- c) Espainiako enpresei buruzko informazioa duen datu-base bat.
- d) Espainiako patenteei buruzko informazioa duen datu-base bat.

**30. UPV/EHU-REN ESTATUTUEN ARABERA, NORK BERMATU BEHAR DU ERREKTORE-KARGURAKO HAUTAGAITZA?**

- a) Klaustrakideek eta Gobernu Kontseiluko kideek.
- b) Klaustrakideen %10ek gutxienez.
- c) Klaustrakideek eta katedradunen %10ek.
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

**31. HAUETAKO ZEIN EZ DA GORDAILU INSTITUZIONAL BAT?**

- a) Dadun
- b) Buleria
- c) Doyma
- d) Gredos

**32. ZEIN DIRA LITERATURA-LAN BATI ESLEITZEN ZAIZKION GAI-SARRERAK?**

- a) Egilearen izena eta lanaren izenburua.
- b) Lanaren izenburua eta egilearen izena.
- c) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.
- d) Egilearen izena.

**33. TRESNA HAUETAKO ZEIN EZ DA ERABILTZEN IKERKETA EBALUATZEKO?**

- a) SJR
- b) SUMMA
- c) ERIH
- d) JCR

**34. ZEIN DA ESALDI ZUZENA UPV/EHU-RI BURUZ?**

- a) Prebentzio-zerbitzu propioa izatera behartuta dago, bere zentroetako bakar batek ere ez dituelako 500 langile baino gehiago.
- b) Ez dago prebentzio-zerbitzu propioa izatera behartuta, hiru unibertsitate-campusetan enpresa kontratatu askok egiten baitute lan.
- c) Espezialitate guztiak dituen prebentzio-zerbitzu propioa du.
- d) Prebentzio-zerbitzu propioa du, baina laneko medikuntzako espezialistak lan-istripuen mutualitate batek jartzen ditu.

**35. UPV/EHU:**

- a) Segurtasun eta Osasun Batzorde bakar bat dago Unibertsitate guztirako.
- b) Ez da beharrezkoa Segurtasun eta Osasun Batzorderik izatea.
- c) Segurtasun eta Osasun Batzorde bat dago campus bakoitzean, eta campus arteko beste bat, Unibertsitate guztirako.
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

**36. ZERK OSATZEN DUTE REBIUN?**

- a) Unibertsitate-liburutegi publiko eta pribatuek eta Liburutegi Nazionalak.
- b) Unibertsitate-liburutegi publiko nahiz pribatuek eta Liburutegi Nazionalak.
- c) Unibertsitate-liburutegi publiko nahiz pribatuek eta CSICen liburutegiek.
- d) Liburutegi Nazionalak eta CSICen liburutegi-sareak.

**37. ZER DA LIBURUTEGI BATEAN HANDIK KENDUTAKO ALE BAT?**

- a) Erabiltzaile batek galdu duen edo itzuli ez duen ale bat.
- b) Mailegatu gabeko ale bat, liburutegi baten funts bibliografikoetan agertzen ez dena.
- c) Bilduma batetik kendu den ale bat, suntsitzeko edo biltegiratzeko eremu batera eramateko edo dohaintza bat egiteko.
- d) Liburutegi arteko mailegu batean galdu den ale bat.

**38. ZEIN DA ESALDI ZUZENA REBIUN-EN KATALOGO KOLEKTIBOKO LIBURUTEGIEN ARTEKO MAILEGU-TARIFEI BURUZ?**

- a) Ez dago tarifarik; liburutegi horien arteko mailegua doakoa da.
- b) Liburutegi bakoitzak zehazten ditu, baina antzekoak izaten saiatzen dira.
- c) REBIUNeko kideek zehazten dituzte, eta urteko batzarrean onartzen dira.
- d) Kultura Ministerioak zehazten ditu.

**39. 1996KO JABETZA INTELEKTUALAREN LEGEAREN ARABERA, NOIZ  
IGAROTZEN DIRA LANAK JABARI PUBLIKORA?**

- a) Egilea hil eta berehala.
- b) Egilea hiltzen denetik 50 urtera.
- c) Zuzeneko oinordekoak hil ondoren.
- d) Egilea hiltzen denetik 70 urtera.

**40. EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOAK EZARRITAKOARI JARRAIKIZ, NOIZ ESKA  
LEZAKE FUNTZIONARIO BATEK INTERES PARTIKULARRAGATIKO  
BORONDATEZKO ESZEDENTZIA BAT?**

- a) Aurreko bost urteetan edozein administrazio publikotan benetako zerbitzuak bete dituzenean, eta eszedentzia horrek ezingo du segidako bi urte baino gutxiago iraun.
- b) Aurreko hiru urteetan edozein administrazio publikotan benetako zerbitzuak bete dituzenean, eta eszedentzia horrek ezingo du segidako bi urte baino gutxiago iraun.
- c) Aurreko bi urteetan edozein administrazio publikotan benetako zerbitzuak bete dituzenean, eta ez da zehazten eszedentzia horren gutxieneko iraupena.
- d) Diziplina-espeditente bat izan arren edo zigor bat betetzeke izan arren.

**41. REBIUN-EN “UNIBERTSITATE-ETA ZIENTZIA-LIBURUTEGIETARAKO  
ARAUEN ETA ILDOEN” ARABERA (1999), LIBURUTEGI BATERAKO OBRAK  
AUKERATZEKO IRIZPIDEEN ARTEAN ERABAKIGARRIA DA:**

- a) Obraren salneurria.
- b) Liburutegian zer leku dagoen.
- c) Aurrekontua.
- d) Aurrekoetako bat ere ez da aukeratze-irizpide bat.

**42. ZERTARAKO BALIO DU EDIFACTEK?**

- a) Fitxa katalogafikoak editatzeko.
- b) Hornitzaileekin datuak trukatzeko.
- c) Liburutegi-funtsen inbentarioak egiteko.
- d) Liburutegi arteko mailegari buruzko estatistikak egiteko.

**43. ZER ADIERAZTEN DU RFID SIGLAK?**

- a) Liburutegi-kudeaketako sistema integratu bat.
- b) Liburutegi arteko mailegurako sare nazional bat.
- c) Irrati-maiztasun bidezko identifikazio-sistema bat.
- d) Aldizkari elektronikoen Alemaniako plataforma bat.

**44. ZER DA ANOXIA?**

- a) Liburuak azalezatzeko teknika bat.
- b) Parasitoak ezabatzeko teknika bat.
- c) Gordailu-eremuak aireztatzeko teknika bat.
- d) Kutsatzaileen prebentziorako teknika bat.

**45. NORK DU UPV/EHU-KO LIBURUTEGIKO BALIABIDE  
ELEKTRONIKOETARAKO SARBIDEA?**

- a) Graduondoko ikasleek eta irakasleek bakarrik.
- b) Administrazioako eta zerbitzuetako langileek eta irakasleek bakarrik.
- c) Unibertsitateko kide guztiek.
- d) Irakasleek eta ikertzaileek eta administrazioako eta zerbitzuetako langileek bakarrik.

**46. ALDIZKAKO ARGITALPEN ELEKTRONIKOETAN, ZER ESAN NAHI DU  
BILDUMA BAHITUA EGOTEAK?**

- a) Ordaindu ez dugunez ezin dugula testu osoa ikusi.
- b) Aurkibideak baino ezin ditugula ikusi.
- c) Testu osoa ikusteko gehigarri bat ordaindu behar dela.
- d) Ale jakin batzuetan testu osoa bistartzeko murrizketa bat duela.

**47. LIBURUTEGI-KUDEAKETAKO SISTEMA INTEGRATU BATEAN, ZEREN  
ARTEKO ERLAZIOA ZEHAZTEN DU MAILEGU-MODULUAK?**

- a) Erregistro bibliografiko baten eta eskuratze-erregistro baten artekoa.
- b) Erabiltzaile-erregistro baten eta ale-erregistro baten artekoa.
- c) Erabiltzaile-erregistro baten eta eskuratze-erregistro baten artekoa.
- d) Erantzun bat ere ez da zuzena.

**48. REBIUN-EN ARABERA, UNIBERTSITATE-LIBURUTEGI BATEKO LOKALEK HONAKO EREMU HAUEK IZAN BEHAR DITUZTE:**

- a) Sarrera, zerbitzu publikoko eremua, gordailuak, instalazio teknikoak.
- b) Aparkalekua, zerbitzu publikoko eremua, barne-laneko eremua, instalazio teknikoak.
- c) Sarrera, kafetegia, zerbitzu publikoko eremua, barne-laneko eremua, gordailuak.
- d) Sarrera, zerbitzu publikoko eremua, lege-gordailuko bulegoa, instalazio teknikoak.

**49. REBIUN-EN ARABERA, ZER INTENTSITATE IZAN BEHAR DU UNIBERTSITATEKO ONDARE BIBLIOGRAFIKO HISTORIKOA OSATZEN DUTEN FUNTS-GORDAILUETAKO ARGIZTAPENAK?**

- a) 300lux-etik gorakoa.
- b) Gehienez 300lux-ekoa.
- c) 500lux-etik gorakoa.
- d) 700lux-etik gorakoa.

**50. ZER ESAN NAHI DU BALIABIDE ELEKTRONIKOETARAKO SARBIDEA IP BIDEZKOA IZATEAK?**

- a) Irakasle eta ikertzaileek bakarrik dutela sarbidea.
- b) Konexioa egiten den ordenagailuaren helbidea ezagutzen duen sarbidea dela.
- c) Ez dago IP bidezko sarbiderik baliabide elektronikoetarako.
- d) Irakasleek eta administrazioko eta zerbitzuetako langileek bakarrik dutela sarbidea.

**51. Z39.50 PROTOKOLOA NATIONAL INFORMATION STANDARDS ORGANIZATION ERAKUNDEAK ONARTUTAKO ARAU BAT DA, ETA HONAKO HAU EMATEN DU:**

- a) Datu bibliografikoen trukea liburutegien artean.
- b) Informazioa berreskuratzea eta, gero, sistema desberdinen artean kudeatzea.
- c) Banda-zabalaren konfigurazioa web-orriak egitean.
- d) Zerbitzari batean dauden datu-baseen bilaketak.

**52. ZER DA OCLC?**

- a) Liburutegien kudeaketa integratuko WorlShare Management Services (WMS) sistemaren erakunde sustatzailea.
- b) Munduko katalogo kolektiborik handienaren (WorldCat) erakunde sustatzailea.
- c) Liburutegi-kooperatiba bat, liburutegi zerbitzu informatikoak eta ikerketa-zerbitzuak ematen dizkiena.
- d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

**53. ZEIN DA UPV/EHU-KO UNIBERTSITATE-LIBURUTEGIAN ERABILTZEN DEN LIBURUTEGI-KUDEAKETAKO SISTEMA INTEGRATUA?**

- a) WorldShare Management Services
- b) Amicus
- c) Millennium
- d) Dobis-Libis

**54. UPV/EHU-KO LIBURUTEGIEK:**

- a) Mailegu-araudi desberdinak dituzte campus bakoitzarentzat eta, hala, erabiltzaileen behar espezifikoetara egokitzen dira.
- b) Araudi komun bat dute liburutegi guztientzat, baita haien jarduera guztiak koordinatzen dituen zuzendaritza bakar bat ere.
- c) UPV/EHUtik kanpoko pertsoneri sartzeko aukera ematen diete ala ez, liburutegi bakoitza dagoen lekuko udalekin egindako hitzarmenen arabera.
- d) Ez dute kexak aurkezteko aukerarik ematen, baldin eta kexa horiek gutxienez liburutegi bakoitzak zerbitzua ematen dien zentroetako bateko ikasleen kontseiluak bermatzen ez baditu.

**55. UPV/EHU-KO UNIBERTSITATE-LIBURUTEGIKO TALDE-LANERAKO GELAK...**

- a) Ez dira unibertsitate-liburutegirako zerbitzu mota egokia.
- b) Unibertsitate-liburutegian gehien eskatzen den zerbitzuetako bat dira.
- c) Azterketa aurreko garaian soilik eskaini behar dira.
- d) Aurreko hiru erantzunetako bat ere ez da zuzena.

**56. REBIUN-EN ILDOEN ARABERA:**

- a) Liburutegiak katalogo automatizatu bakarria izan behar du, eta han jaso behar da funts guztien informazioa, edozein direla ere haiek dauden lekua, haiek eskuratzeko izan den aurrekontu-partida eta haiek aurkezteko erabiltzen den euskarria.
- b) Katalogoa idazteko, ezinbestekoa da deskribapen bibliografikoko nazioarteko arauak betetzea, eta, horrez gainera, materialaren kokapenari eta antolaerari buruzko informazioa eman behar du.
- c) REBIUNek unibertsitate- eta zientzia-liburutegiei buruzko estatistikak sortzen ditu, baina ez du ildorik zehazten liburutegi horientzat.
- d) a) eta b) zuzenak dira.

**57. EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOAREN LEGEAREN ARABERA, NOIZ EZAR DAKIEKE ZERBITZU BEREZIETAKO EGOERA EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO FUNTZIONARIOEI?**

- a) Behin-behineko langileentzat gordetako postuetan lanean ari direnean.
- b) Haien lanpostua bertan behera uzten denean eta beste lanpostu bat eman ezin dietenean.
- c) Interes partikularrengatik hala eskatzen dutenean.
- d) Edozein Administrazio Publikotako beste talde edo eskala batean zerbitzu aktiboan daudenean eta beste egoera batean geratzea ez dagokienean.

**58. LIBURU-ERAKUSKETA BAT:**

- a) Liburutegi-marketina egiteko modu bat da.
- b) Liburuak apaletatik ateratzean datza, erabiltzaileentzat ikusgai jartzeko eta haien erabilera sustatzeko.
- c) Eguneroko gaiekin edo erabiltzaileen interesekin lotzeko egin ohi da.
- d) Aurreko hirurak zuzenak dira.

**59. ZEIN DA ESALDI ZUZENA UNIBERTSITATE-LIBURUTEGI BATEKO  
LIBURUTEGI-MARKETINARI BURUZ?**

- a) Ikasturte-hasieran soilik jarri behar da abian, unibertsitatera iritsi berriak diren ikasleak erakartzeko.
- b) Ez du barnean hartzen liburutegiko langileenganako komunikazio-ekintzarik; izan ere, dagoeneko liburutegiko helburuekiko konpromisoa hartua duen eta bokazio handia duen talde bat da.
- c) Erabiltzaileen informazio-beharrak identifikatzen ditu, haiek modu errentagarrian asetzeko, ahal den neurrian behar horiei aurrea hartuta.
- d) Ez da beharrezkoa liburutegi-marketina egitea; izan ere, unibertsitateko liburutegia unibertsitate-tradizioarekin lotura estua duen zerbitzu bat da, eta ez dauka saldu beharreko produktu komertzialik.

**60. ZEIN DA ESALDI ZUZENA LIBURUTEGIKO ZERBITZUEN KALITATEAREN  
EBALUAZIOARI BURUZ?**

- a) ISO 14001 araua betez gauzatzen da.
- b) ISO 11620:2014 arauaren bidez gauzatzen da.
- c) Ez dago gai hori jorratzen duen ISO araurik; horregatik, kalitate-prozesuak ebaluatzeko arauak aplikatu behar dira.
- d) Bat ere ez da zuzena.

**61. ZEIN DA ESALDI ZUZENA EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO  
PREBENTZIO-ORDEZKARIEI BURUZ?**

- a) Ez dute funtziorik unibertsitateko liburutegian, esparru horretan ez dagoelako lan-arriskurik.
- b) Lan-arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dauden araudiak betetzen direla bermatzeko Unibertsitateko zuzendaritzak izendatutako pertsonak dira.
- c) Langileen ordezkariak dira, eta funtzio espezifikokoak dituzte lan-arriskuen prebentzioaren arloan.
- d) Lan-arriskuen prebentzioarekin erlazionatutako produktuen fabrikatzaileen ordezkari komertzialak dira.



**62. ZEIN DA ESALDI ZUZENA UNIBERTSITATEKO LIBURUTEGIKO KALITATE-  
KUDEAKETARI BURUZ?**

- a) Bezeroaren eskakizunak betetzera eta haren itxaropena gainditzera bideratuta dago.
- b) Erakundeari aukera ematen dio analisisian eta ebaluazioan oinarritutako erabakiak hartzeko.
- c) Erakundeari aukera ematen dio bere jarduera optimizatzeko, aukera ematen baitio sistema horrek emaitzak nola sortzen dituen ulertzeko, prozesu, baliabide, kontrol eta interakzio guztiak barnean hartuta.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**63. ZEREKIN ERLAZIONATZEN DA ILL PROTOKOLOA?**

- a) Metadatu-trukearekin.
- b) Liburutegi arteko maileguarekin.
- c) Katalogazio partekatuarekin.
- d) Baliabide elektronikoen erregistroak sortzearekin.

**64. 1978KO ESPAINIAKO KONSTITUZIOAREN ARABERA, ARGITALPENAK,  
GRABAZIOAK ETA BESTE INFORMAZIO-BALIABIDE BATZUK BAHITU  
AHAL IZANGO DIRA:**

- a) Ez, inoiz ez.
- b) Ebazpen judizialez soilik.
- c) Ebazpen administratibo edo judizialez soilik.
- d) Alarma-, salbuespen- edo setio-egoerak indarrean daudenean soilik.

**65. ZER DA OPAC?**

- a) Operating Public Access Catalog
- b) Operative Publication Access Catalog
- c) On line Public Access Catalog
- d) Open Public Access Catalog

**66. ZER EGIN BEHAR DUTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK BEREN  
ESKUDUNTZA-ESPARRUAN EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO  
BERDINTASUN-PRINTZIPIOA APLIKATZEARI DAGOKIONEZ?**

- a) Berdintasunaren arloko trebakuntza sustatu, nola enplegu publikora sartzean, hala ibilbide profesional guztian.
- b) Emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatu hautaketa- eta balorazio- organoetan.
- c) Sexu-jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren kontrako babes-neurri eraginkorrak ezarri.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**67. UPV/EHU-REN ESTATUTUEN ARABERA, NORK OSATU BEHAR DU  
UPV/EHU-KO ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILERIA?**

- a) Langile funtzionarioek, lan-kontratudun langileek, indarrean dagoen legediaren arabera UPV/EHUn lanean ari diren beste administrazio publiko batzuetako funtzionarioek eta behin-behineko langileek.
- b) Langile funtzionarioek eta lan-kontratudun langileek baino ez.
- c) Karrerako funtzionarioek eta lan-kontratudun langile finkoek baino ez.
- d) Aurrekoetako bat ere ez da zuzena.

**68. EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOAREN LEGEAREN ARABERA, SEME-ALABEN  
ZAINZAGATIK ESZEDENTZIA-EGOERAN EGOTEKO GEHIENEO EPEA  
BETE ONDOREN, ZENBAT EGUN DITU GEHIENEZ FUNTZIONARIOAK  
ZERBITZU AKTIBORA ITZULTZEA ESKATZEKO?**

- a) 15 egun.
- b) 30 egun.
- c) 60 egun.
- d) 90 egun.

**69. ZE DA SCIENCE CITATION INDEX?**

- a) Informazio-zientzien datu-base bat.
- b) Zientzia-tesauro bat.
- c) Gai-goiburuen zerrenda bat.
- d) Erabilera bibliometrikoko datu-base bat.

**70. NORENA DA UNIBERTSITATEKO LIBURUTEGIAK GORDAILUTAN  
JASOTAKO BILDUMA BAT?**

- a) Jasotzen duen liburutegiarena.
- b) Gordailutan utzi duen jabearena.
- c) Liburutegia eta gordailutan utzi duena jabeakide bihurtzen dira.
- d) Unibertsitatearena.

**71. 1978KO KONSTITUZIOAK ONARTZEN AL DU UNIBERTSITATEEN  
AUTONOMIA?**

- a) Ez; haien autogestioa soilik onartzen du.
- b) Bai, Konstituzioak berak ezartzen dituen arauen arabera.
- c) Bai, legeak ezartzen dituen arauen arabera.
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

**72. ZER DA DOI?**

- a) Datu-base bat.
- b) Baliabide digitalen identifikatzaile bat.
- c) Argitalpen seriatuen zenbaki normalizatu bat.
- d) Argitalpen ofizialen erregistro bat.

**73. SCHELLENBERG-EN ARABERA, ZER MODU DAUDE AGIRIAK  
SAILKATZEKO?**

- a) Sailkapen asoziatiboa eta agiri-sailkapena.
- b) Sailkapen analitikoa eta sailkapen funtzionala.
- c) Sailkapen organikoa eta sailkapen asoziatiboa.
- d) Sailkapen funtzionala eta sailkapen organikoa.

**74. HAUETAKO BAT EZ DA UPV/EHU-KO GOBERNU-KONTSEILUAREN  
ESKUMENA:**

- a) Errektoreari bere egitekoetan laguntzea.
- b) Errektorea hautatzeko hauteskundeetara deitzea.
- c) UPV/EHUren aurrekontuak onartzea.
- d) Campus berrien sorrera Unibertsitateko Klaustroari aurkeztea onar dezan.

**75. MATEMATIKAKO ALDIZKARIEN BILAKETA BAT EGITEKO, ZER KATALOGO  
KOLEKTIBO KONTSULTATUKO GENUKE?**

- a) MECANO
- b) ABBA
- c) MATCAT
- d) DOCUMAT

## ERRESERBAKO GALDERAK

### 76. ZERTARAKO BALIO DUTE METADATUEK?

- a) Informazio digitala antolatzeko.
- b) Informazio digitala berreskuratzea.
- c) Informazio digitala biltegitratzea.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira

### 77. ABENDUAREN 18KO 3/1979 LEGE ORGANIKOAREN ARABERA, ZEINA EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUARENA BAITA, LEHENDAKARIA:

- a) Legebiltzarrak aukeratuko du bere kideen artean, eta Kongresuko presidentea izendatuko du.
- b) Legebiltzarrak aukeratuko du Gobernuko kideen artean, eta Senatuko presidentea izendatuko du.
- c) Legebiltzarrak aukeratuko du bere kideen artean, eta Erregeak izendatuko du.
- d) Legebiltzarrak aukeratuko du Gobernuko kideen artean, eta Eusko Legebiltzarreko presidentea izendatuko du.

### 78. ZEIN DA AGIRIAK DESKRIBATZEKO NAZIOARTEKO ARAU OROKORREN AKRONIMOA?

- a) INAD (S)
- b) ISAD (G)
- c) IDAG (D)
- d) IGAD (N)

### 79. ISSN-A EZ DA...

- a) Aldizkako argitalpenen identifikatzaile bat.
- b) 9 zifrako kode bat.
- c) ISO 3297 arauaren identifikatzaile bat.
- d) Erregistro bibliografiko baten 022 kodea Marc formatuan.

**80. NOIZ SINATU ZEN BOLONIAKO ADIERAZPENA?**

- a) 1996. urtean.
- b) 1997. urtean.
- c) 1999. urtean.
- d) 1998. urtean.

**81. REBIUN-EN “UNIBERTSITATE-ETA ZIENTZIA-LIBURUTEGIETARAKO  
ARAUEN ETA ILDOEN” ARABERA (1999), ZENBAT LIBURUKI IZAN BEHAR  
DITU GUTXIENEZ UNIBERTSITATE-LIBURUTEGI BATEKO OINARRIZKO  
BILDUMAK?**

- a) 30.000.
- b) 40.000.
- c) 50.000.
- d) 60.000.

**82. ERREFERENTZIA BIRTUALEKO ZERBITZUEN ARLOAN CO-BROWSINGAZ  
HITZ EGITEN DUGUNEAN, ZERI BURUZ ARI GARA?**

- a) Zenbait erreferentzia-zerbitzuren artean aurrez jasotako ereduzko erantzunak erabiltzeari buruz.
- b) Txat-zerbitzu baten bidezko liburuzain-erabiltzaile interakzioari buruz.
- c) Zenbait erreferentzia-zerbitzuren artean bilaketa-erabiltzeari buruz.
- d) Liburuzainaren eta erabiltzailearen baterako nabigazioari buruz.

**83. ZER ETIKETA DAGOKIO MARC FORMATUAN DAGOEN ERREGISTRO  
BIBLIOGRAFIKO BATEN ARGITALPEN- ETA BANAKETA-ARLOARI?**

- a) 080.
- b) 100.
- c) 250.
- d) 260.

**84. ZEIN DA KOKAPENA ETA SARBIDE ELEKTRONIKOA ADIERAZTEN DITUEN  
MARC ETIKETA?**

- a) 856.
- b) 008.
- c) 035.
- d) 020.

**85. ZER DA BENCHMARKINGA?**

- a) Liburutegirako marketin-plan bat.
- b) Zerbitzuen kalitatea kudeatzeko tresna bat.
- c) Zerbitzuen kalitate-ranking bat.
- d) Zerbitzuen kalitate-adierazle bat.